

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“A-2620 errepidean Legutioko saihebidia eraiki eta A-623 errepidearekin lotzeko proiektuaren lehenengo aldaketa”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak, 2024ko azaroaren 15ean, 578/2024 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“A-2620 errepidean Legutioko saihebidia eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeko proiektua egikaritzeko beharrezkoa den desjabetzea handitzea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 373/2023 Erabakiaren bidez, erantzun egin zitzaizkien “A-2620 errepidean Legutioko saihebidia eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeko proiektua”ren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei, eta onespina eman zitzaion haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari; gainera, haiek okupatu eta eskuratu beharra zegoela adierazi zen, eta izapide hori premiazkoa zela deklaratu zen, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion proiektua gauzatzeko behar ziren azalerak handitu eta/edo aldatzeko.

Erreferentziako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendaren desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da.

2024ko urriaren 15ean, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak jakinarazi zuen aipatutako proiektuak A-2620 errepidearen ezker aldean (1. ardatza) lur erauzketako ezpona bat egitea aurrekusten duela, 0+270 KParen eta 0+430 KParen artean, gutxi gorabehera. Bertan, obren zapaluneak egiteko egin beharreko sastraka kentzea eta gero, egiaztatu da lur zerrenda horren benetako koto proiektuaren planoetan agertzen dena baino altuagoa dela. Horren ondorioz, zapalunearen kanpoko ertza ardatzetik urrunago dago, eta albo horretako desjabetzea ez da nahikoa.

Hori dela eta, desjabetzea handitu egin behar da egokitzapen horrek eragindako lurzati bakarrean, hau da, 2023/1 desjabetze espedienteko 62 zenbakiko finke dagokiona.

Ondorioz, 2023/1 desjabetze espedientea zabaltzea proposatzen du, aipatutako lur zerrendari dagokion beharrezko okupazioa sartzeko, atxikitako ondasun eta eskubideen zerrendaren eta planoaren arabera.

Horretarako, desjabetze espedienteko 62/200 finke sortzen da, foru agindu honen eranskinean agertzen den afekzioarekin, eta horren balorazioa 3.053,70 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 15. artikuluek okupazioa handitzea eta hedatzea aurrekusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzearako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik gertatzen direla iritziz. Era berean, adierazi behar da presaz okupatu beharrekotzat deklaratzeko gauzatu beharreko proiektuen handitzeak ere hartzen dituela, eta presazko prozeduraren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak egin behar dira.

Aztertu dira Desjabetze Atalak eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeke proiektua egikaritzeko beharrezkoa den desjabetzea handitzea, eranskinean zehazten denaren arabera.

Bigarrena. Adieraztea handitzeak eragindako ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeak egiteko.

Hirugarrena. Presazko prozeduraz izapidetzea eranskinean zerrendatutako 62/200 finkaren desjabetzea.

Laugarrena. 3.053,70 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000505 "Desjabetzeak" aurrekontu aplikazioaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako aurrekontu aplikazioaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeke errekurtsioa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."


Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Legutioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 21a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA



Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila
 Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO
A-2620 errepeidean Legutioko salhesbidea eraiki eta A-623 errepeidearekin lotzeko proiektua
Proyecto de construcción de la variante de Legutio en la carretera A-2620 y conexión con la carretera A-623
 ERANSKINA / ANEXO

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		UDAL MUGARTEA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		ORDUA
		POLIGONO/LURSAILA	DATOS CATASTRALES			BEHIN-BETIKOA	SUPERFICIE AFECTADA m ²	
62/200	ADMINISTRAZIO BATZARRA/ JUNTA ADMINISTRATIVA: LEGUTIO	3	561	TÉRMINO MUNICIPAL LEGUTIO	Onura publikoko mendiak / Monte de utilidad pública	783		04/12/2024 10:30